

BEKEN DEIALDIA

Human Rights Internship Programme 2024.
Genevako Giza Eskubideen Kontseiluari buruzko formakuntza programa

PROGRAMA ETA HAUTAKETA IRIZPIDEAK

Genevako (Suitza) Giza Eskubideen Kontseiluari buruzko formakuntza programa batean parte hartzeko 8 beka eskaintzen dira.

UN Etxeak – UNESCO sustatzeko Euskal Herriko elkarteak, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzarekin batera, **8 formakuntza-beka** eskaintzen dituzte Euskadi mailan giza eskubideen balioak lantzen dituzten **hezkuntza-arloko gazteentzat**.

Bekadunek formakuntza programa teoriko eta praktikoa batean parte hartzeko aukera izango dute, **Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluak Genevan (Suitza) egindako 57. bilkura-aldian** 2024ko irailean.

Programa Giza Eskubideen Kontseiluaren bilkura-aldien esparruan garatuko da eta Nazio Batuen Sistemaren giza eskubideak babesteko mekanismoen funtzionamendurako hurbilketa teoriko eta praktikoa ahalbidetuko du. Formakuntzaren zati teorikoa, Giza Eskubideen Kontseiluko hainbat instantziatan izandako parte-hartze praktikoa eta aurrez-aurrekoarekin osatzen da.

Jarduera hezkuntza eremu formal edota ez-formalari lotutako gazteentzat zuzenduta dago, giza eskubideak babesteko nazioarteko tresnetan eta giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzan sakontzeko interesa dutenentzat.

Programa teorikoak honako hauek biltzen ditu*:

- Nazio Batuen Sistemak Giza Eskubideak babesteko dituen mekanismoak. Sarrera orokorra y Giza Eskubideen Kontseiluaren (GEK) dinamika.
- Prozedura bereziak:
 - Tipologia (errelatore berezia, aditu independentea, Idazkari Orokorraren ordezkari orokorra, lantaldeak).
 - Printzipioak
 - Agintaldi tematikoak eta geografikoak
 - Lan-metodoak
 - Giza eskubideen urraketak jakinarazteko prozedura
 - Nola parte hartu txostenetan
 - Mugak
 - Abantailak
- GEKren Aldizkako Azterketa Unibertsala:
 - Oinarriak
 - Helburuak
 - Sortutako dokumentazioa
 - Funtzionamendua
 - Jarraipena
- Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzaren (GEH) Munduko Programa.
 - GEHren mugarriak Nazio Batuetan.

- Etapak
- Ekarpenak
- Giza Eskubideen Kontseiluaren webgunearen erabilera, informazioa eskuratzeko tresna gisa:
 - Webgunea, extraneta eta beste gune interesgarri batzuk.

Era berean, programa praktikoak barne hartzen ditu GEKren 57. Bilkura-aldiko paneletara joatea eta hainbat espaziotara bisitak egitea, hala nola, argitalpen-bulegora eta OACNUren liburutegira.

**Formakuntzaren behin-betiko programa bidaia baino lehen bidaliko zaie hautatutako pertsoneri.*

Hautagaien hautaketa honako irizpide hauetan oinarritutako ebaluazio batean oinarrituta egingo da:

- 18 urtetik 30era bitarteko adina izatea.
- Giza eskubideei buruzko aurretiko formakuntza edota ezagutza frogagarriak.
- Hezkuntza eremu formal edota ez-formalarekiko lotura (irakasleak, gizarte-hezitzaileak, aisialdiko eta denbora libreko monitoreak, Epts teknikariak eta hezkuntzarekin lotutako beste profil profesional edo boluntarioak).
- Ezagutzak errepikatzeko espektatibak eta aukerak.
- Ingeles maila altua.
- Euskal Autonomia Erkidegoan errolatuta egotea.
- Genero berdintasunaren eta aniztasunaren sustapenaren irizpideak.

Formakuntza garatzeko beharrezkoak diren materialez gain, **bekaren barruan** hegazkinez egindako bidaia, hotela eta Genevako elikadura daude sartuta.

Parte-hartzaileek formakuntza programaren saio guztietan parte hartzeko konpromisoa hartzen dute, eta eskuratutako ezagutzak itzultzeko baita. Bestela, bekaren zenbateko itzuli beharko dute.

Bidaiaren **data zehatzak** abuztua baino lehen zehaztuko dira, aurreikuspenen arabera, 2024ko irailean, astelehenetik ostegunera.

Beka eskatzeko, honako hauek bidali behar dira:

- Hautagaiaren **CVa**
- [Aplikazio formularioa](#)

Eskabideak gizaeskubideak@unetxea.org posta elektronikora bidali behar dira 2024ko maiatzaren 31ra arte (barne), "Geneva beka" erreferentziarekin.